

PETE JOHNSON

>traidorea_



desclée

>traidorea_

Pete Johnson

Itzultzailea:

Regina Larruzea Aransolo

desclée

Jatorrizko izenburua:
Traitor

Corgi Yearling edition published 2002

Testua © 2002 Pete Johnson

Itzulpena © 2021 Regina Larruzea Aransolo

© 2021, DESCLÉE DE BROUWER, S.A.

Henao, 6 - Bilbao

Tlf.: 94 423 30 45

www.desclee.eus

info@edeslee.com

Eragotzita dago, legeak ezarritako salbuespenetan izan ezik, obra honen edozein eratako berregintza, komunikazio publiko eta moldaketa, aurrez jabetza intelektualaren titularren baimena eskuratzen ez bada. Eskubide horien urraketa jabetza intelektualaren aurkako delitu bezala har daiteke (Zigor Kodearen 270. artikulua eta hurrengoak).

ISBN: 978-84-330-3153-2

Legezko gordailua: BI-1234-2021

*Pauso motelekin ibiltzen hasi nintzen, beti bezala.
Sonia zain neukan. Ez zidan egin irribarre faltsurik,
Chrisek egingo zukeen bezala.
—Zerbait daukazu niretzat –esan zidan.
—Astero lau libera, asko da niretzat.
—Baina ordain dezakezu –bota zidan zakarki,
labana bezain zorrotz begira.
Libera bateko lau txanpon atera nituen.
Eskutik kendu zizkidan...*

1

Tom

—Tom.

Norbait nire izena xuxurlatzen ari zen. Ikusten ez nuen norbait.

—Tom —esan zuen berriro.

Neska ahots bat zen. Ikusten saiatu nintzen, baina ez nuen inor bereizten.

—Zer nahi duzu? —esan nuen.

Zuhaitz-adarren kirrinkak eta haizearen hasperenak baino ez zidaten erantzun.

Argi zegoen norbaitek uste zuela txantxa barregarri bat egiten ari zela. Baina, egia esan, niri ez zidan batere graziaz egiten.

Buelta eman nuen. Etxerantz nindoan. Nire etxerako bidea estua eta bihurria da, eta ez zait batere gustatzen han ibiltzea, bereziki berandu denean. Gau hartan bezala. Baina etxera iristear nintzen.

—Zer berandu zabiltzan gaurkoan, Tom. Futboleko entrenamenduan izan zara, ezta?

Buelta eman nuen mugimendu azkar batekin.

—Nor dago hor? —oihukatu nuen.

Zarata arraro batzuk entzun nituen, eta bat-batean, norbait bereizteko gai izan nintzen. Silueta luze eta ilun bat. Eta kaputxa baten itzala ere bai. Herio deika nuela ematen zuen.

Hotzikara batek gorputza astindu zidan.

Orduan, itzala niregana hurbiltzen hasi zen, baina oso astiro, trikimakoekin balebil bezala. Eta bai, neska bat zen, goitik behera beltzez jantzita zegoen neska bat. Ziur nengoen ordura arte ez nuela behin ere ikusi nire bizitza osoan.

—Kaixo, Tom —esan zidan.

—Nolatan dakizu nire izena?

—Asko dakit zutaz.

—A, bai? —esan nion duda-mudan.

—Bai, noski. Asteak daramatzat zuri jarraika.

—Zergatik egin duzu hori? —ezin izan nuen ekidin nire ahotsak intziri kutsu bat izatea.

Are gehiago hurbildu zitzaidan, lehenago bezain astiro eta konfiantzaz. Laranja koloreko kale-argiaren azpian zegoen.

Goitik behera beltzez jantzita egoteaz gain, ezpainak eta begiak ere beltzez margotuta zituen. Aurpegia hauts zuriz makillatuta zeukan, eta hildako bizidun bat ematen zuen. Mugitzen zen bakoitzean, soinutxoak entzuten ziren, apaingarri mordoa zeramalako soinean.

Liluragarria zen, modu berezi batean. Baina zerbait bitxia eta beldurgarria ere bazuen. Zergatik zegoen hain interesatuta gutxienez hamabost urte izango zituen neska bat hamaika urteko umemoko batengan?

—Ez duzu ikasten nire eskolan, ezta? –galdetu nion. Argi geratu zen hanka sartu nuela, bere begi ilunak zirrikitu bihurtu zirelako segituan.

—Keba, nire eskola zabortegi bat da, ez zurea bezalakoa. Zurea eskola dotorea da.

—Ez pentsa... –hasi nintzen esaten.

—Bai, dotorea da –moztu zidan zakarki.

Jakina, ez nintzen hasiko horri buruz eztabaidan. Baina, egia esan, nire eskola ez da horren dotorea. Txikia da, bai, eta azterketa bat gainditu behar da sartu ahal izateko. Eta nik horixe egitea lortu nuen, txiripa hutsez gainditu banuen ere.

Kontu hura une hartan moztea erabaki nuen. Argi zegoen neska hura xelebrea samarra zela, eta berarekin zenbat eta zerikusitago izan, hobeto.

—Sentitzen dut, baina joan beharra dut... zera... –bere izena gogoratzen saiatu nintzen, baina ez zidala esan konturatu nintzen.

—Ene, barkatu, zeinen heziera txarrekoa naizen. Chris deitzen naiz.

—A, noski, primeran.

Irribarre egiten saiatu nintzen.

—Beno, agur, Chris.

—Egon pixka bat. Joan baino lehen... –esan zidan ahotsa jaitziz eta konfiantzaz hitz eginez-. Kontua da diru pixka bat eskatu behar dizudala, Tom.

Erantzuten saiatu nintzen.

—Lau libera baino ez dira, miseriatxo bat zuretzat. Erraz ordain dezakezu.

Ez zen egia, eta zorrotz erantzun nion.

—Barkatu baina sosik gabe nago une honetan. Sentitzen dut.

Handik hanka egitea erabaki nuen, baina ospa egitera nindoala, eztarrian garrasi bat ito zitzaidan: beste norabidetik beste bi silueta kaputxadun agertu ziren.

—Oraintxe galdetu diot Tomi ea diru pixka bat lagako didan —esan zien Chrisek—. Baina, tamalez, ez dit lagundu nahi izan. Arakatu behar izango duzu, Sonia.

Neskarik garaiena (erraldoia zen, benetan) nire patrikak miatzen hasi zen, eta kexatzeko aukera izan baino lehen ere, nire diru-zorroa aurkitu zuen.

Airean jaso zuen, trikimailu bat egin berri duen mago bat balitz bezala.

—Aizu, nirea da! —oihukatu nion.

Baina zorroa irekitzen hasia zen jada.

—Gezurrontzi! —bota zidan—. Bost libera eta berrogei zentimo zenituen aldean. Baina lau libera hartuko ditugu bakarrik. Ez gara mutilak bezalakoak. Ez gara gutziatsuak. Eta orain, altxa eskuak, zer gehiago daukazun begiratzen dudan bitartean. Tira, ez daukat egun osoa.

Berak esandakoa egin nuen. Goitik behera arakatu ninduen, horretarako eskubide osoa balu bezala. Amorruez eta frustrazioz irakiten nengoen.

Eta orduan, nire telefono mugikorra aurkitu zuen. Gauza bat esan behar dut, astebete lehenago lortu nuen, eta urteak behar izan nituen aita mugikor bat emateko konbentzitzeko. Egun hartantxe,

nire gelako guztiei haien zenbakiak eskatzen aritu nintzen nire mugikorraren memorian gordetzeko.

—Ez ukitu. Berri-berria da –bota nion—. Hirurogeita hamar libera baino gehiago kostatu da eta aita izugarri haserretuko zait...

Baina ezin izan nuen ezer gehiago esan. Soniak gorbatatik heldu eta tiraka hasi zitzaidan, eta hortzak estutuz belarrira esan zidan amorrazioz:

—Ez zaitetz berriro ausartu guri horrela hitz egiten. Begirunea zor diguzu. Errespetua! Ulertzen?

Gorriak ikusten ari nintzen erantzuteko, indar handiarekin ari zelako nire gorbatari tira egiten. Hitzak eztarriaren hondotik arrastaka atera behar izan nituen.

—Bai. Sentitzen dut.

Soniaren begiak sutan zeuden oraindik. Baina orduan Chrisek ahapeka esan zuen:

—Ondo da, ez da berriro izango horren ahoberoa. Orain badaki nola hitz egin behar digun.

Soniak beste amorru begirada bat bota zidan, eta gero askatu egin ninduen. Zorabiatuta, atzeraka balaztatu nintzen (egia esan, ziplo erortzear izan nintzen), eta eztulka hasi nintzen.

Denbora pila egon nintzen eztulka. Baina ez bakarrik Sonia gorbatatik estutzen aritu zitzaidan moduagatik, oso lurrin usaintsua zeramalako ere bai.

Tripak ahotik bota arte eztulka ari nintzela, hiru neskak niri begira geratu ziren, kalekka batean aurkitu zuten izaki bitxi bat banintz bezala. Pixka bat interesatuta zeudela esango nuke, baina ez ziren batere kezkatu. Soniaren begietan amorru izpi bat ere bazegoen.

Azkenean ere eztulka egiteari uztea lortu nuen.

—Beno, zure mugikorra maileguan hartuko dugu –esan zuen Chrisek.

—Ea horrela ikasten duzun modalak izaten –erantsi zuen Soniak.

—Eta datorren astean beste lau libera batzeko itzuliko gara –jarraitu zuen Chrisek.

—Zer?! –bota nuen harrituta.

—Etxera joateko ordaindu behar duzun bidesaritzat har dezakezu –esan zidan Soniarekin iritsi zen neskak. Besteak bezala jantzita zegoen, baina ilean xerlo berde eta gorriak zeuzkan. Bere ahotik atera zen lehen gauza izan zen. Soniak eta Chrisek barre egin zuten ateraldi hura entzutean, eta neskak harro egin zuen irribarre.

Orduan Chris makurtu eta aurpegia nirearen pare-parean jarri zuen. Eztulka hasi nintzen. Soniaren lurrin bera zeraman. Bizkarrezurrean behera hotzikarak eragin zizkidan ahots baxu-baxuarekin xuxurlatu zidan:

—Ez gaitzazu salatu ezta ametsetan ere. Gogoan izan badakigula non bizi zaren.